


2002an, 270.000 lagunetik gora ospitaleratu ziren Euskal AEko ospitaleetan

Arnas aparatuko gaixotasunek eragindako ospitaleratzeak %13,4 gehitu ziren 2002an

2002an, 271.170 laguni eman zitzairen alta Euskal AEko akutuen ospitaleetan ospitaleratuta egon ondoren, Eustaten datuen arabera. Datu horrek, aurreko urtearekiko %2,1eko hazkundearekin, adierazten du 100 biztanleko 13 ospitaleratu zirela tratamendua jasotzeko. Ospitaleratutako pertsona guztien %76 ospitale publikoetan atenditu ziren eta %24 ospitale pribatuetan.

Euskal AEko akutuen ospitaleetan ospitaleratutako pazienteen batez besteko egonaldia 5,5 egunekoa izan zen 2002an, 0,1 egun laburragoa aurreko urtean baino. Datu horiek pazienteen batez besteko egonaldiak murrizteko joera baieztatzen dute. Guztira 1.480.483 izan ziren ospitaleetan emandako egonaldi-egunak, 2001ean baino %0,7 gutxiago.

Akutuen ospitaleetako altak, sarrien ematen diren diagnostiko-taldeka 2001-2002



Iturria: EUSTAT

Ospitaleratzeen ehunekorik handiena 65 urte eta gehiagoko taldeak izan zuen.

Alten %41 (110.434) 65 urte eta gehiagoko biztanleriak eragin zuen; hau da, biztanleria-talde horretako 100 biztanleko 29 ospitaleratuta egon da, doblea baino gehiago, batez besteko orokorraren aldean (100 biztanleko 13koa). Halaber, talde horren batez besteko egonaldia luzeena da eta 6,9 egunera iritsi zen, 65 urtetik beherakoen batez besteko egonaldiaren gainetik (4,5 egun).

Sexuka, ospitaleratutako gaixoen %51 emakumeak izan ziren.

Sexuka, alten %49 gizonezkoek eragin zituzten eta %51 emakumezkoek; baina, haurdunaldiak eta erditzeak eragindakoak alde batera utzita, gizonezkoen ehunekoa 2002an ospitaleratuen %53,6ra iritsi zen.

Zirkulazio-aparatuko gaixotasunek ospitaleratze gehien eragin zuten arren, arnas eritasunek eragindakoak gehitu ziren gehien 2001. urtearen aldean.

2002an, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak izan ziren ospitaleratze- eta egonaldi-kausa nagusiak eta ospitaleratze guztien %12,6 eragin zituzten. Patologiarik ohikoenak bihotzekoak izan ziren: bihotz-gelditzeak (%11,2), bihotz-eritmoaren alterazioak (%9,3) eta miokardioko infartu akutuak (%7); jarraian, barizeak (%11,4) eta enboliak eta garun-infartuak (%6,8).

Bigarren ospitaleratze-kausa digestio-aparatuko gaixotasunak izan ziren eta ospitaleratze guztien %11,5 eragin zuten; horien artean, ohikoenak iztai-etenak (%16,8), besikulako arazoak (%15,2) eta apendizitis akutuak (%7,4) izan ziren.

Hirugarren kausa nerbio-sistemari eta sentimenen organoei eragiten dieten gaixotasunen taldea izan zen (ospitaleratze guztien %10,3), eta horien artean aipatzeako izan ziren kataraten interbentzioak (talde horretako ospitaleratzeen %62,4).

2001. urtearekin alderatuta, arnasketa-gaixotasunek eragindako ospitaleratzeak nabarmen gehitu ziren (%13,4), eta bereziki, bronkitis kroniko kasuak, %19,5 gehitu baitziren. Horrek esan nahi du, arnasketa-arazoak ospitaleratze handiena eragiten duten gaixotasunen rankingean zazpigarren postutik laugarrenera pasa direla, tumore-gaixotasunen, osteomuskularren eta haurdunaldiko eta erditzeko arazoak aurretik. Ohikoenak diren gainerako gaixotasunen artean, tumoreek eragindako ospitaleratzeak %6,1 gehitu ziren, aurreko urtearen aldean.

Arreta emandako perfil patologikoek sexuaren arabera desberdintasunak agertu zituen, sexu biengan ospitaleratzeak arrazoi nagusia kataratak izan ziren arren; gizonezkoengan maizago eragin zuten iztai-eten, bronkitis kroniko, belauneko barne-arazoak (meniskoak) eta bihotzeko arazoak (bularreko angina eta infartuak); eta emakumeengan barize, artrosi eta besikula-arazoak.

Adin-taldea, 14 urtetik beherako biztanlerian ospitaleratze gehien eragin zituen diagnostikoa amigdalitis kronikoa izan zen; 15 eta 44 urte artekoen taldean (haurdunaldiak eta erditzeak alde batera utzita) eta 45 eta 64 urte artekoenean, aldiz, belauneko barne-arazoak eragin zuten ospitaleratze gehien; 65 urtetik gorakoen artean kataratak nagusitu ziren.

Batez besteko egonaldi luzeena eragin zuten patologia gaixotasun mentalak (14,3 egun) izan ziren; ondoren, jaiotza-inguruko gaixotasunak (13,3 egun) eta tumoreak (8,7 egun).

Gaixoen %60k prozedura kirurgikoren bat izan zuten.

Akutuen ospitaleetan 162.057 ebakuntza kirurgiko egin ziren. 2002an maizen egin diren prozedura kirurgikoak honakoak izan ziren: katarata-ebakuntzak (%10,8), erditzean laguntza edo indukzio-prozedurak (%6,8) eta artikulazioetako ebakuntzak, eta horien artean, meniskoak eta mokorrak nabarmendu ziren.

Alten eta batez besteko egonaldiaren banaketa (egunak), diagnostiko-taldee jarraiki, sexuaren arabera

	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	altak	egunak	altak	egunak
GUZTIRA	133.006	5,9	138.164	5,0
Gaixotasun infektzioak	2.179	8,0	1.533	7,6
Tumoreak	12.668	9,7	11.400	7,6
Gaixotasun endokrino eta metabolikoak	1.800	6,9	2.105	6,4
Gaixotasun mentalak	2.733	13,5	2.196	15,2
Nerbio-sistemako eta sentimen-organoko gaixotasunak	11.705	1,5	16.274	1,0
Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak	19.875	6,9	14.417	6,4
Arnas eritasunak	14.936	6,1	9.182	6,0
Digestio-aparatuko gaixotasunak	18.545	5,6	12.549	6,3
Aparatu genitourinarioko gaixotasunak	6.793	5,1	10.104	3,4
Larruazaleko eta azalpeko gaixotasunak	2.204	4,0	1.390	5,1
Haurdunaldia eta erditzea	-	-	22.860	3,0
Gaixotasun osteomuskularrak eta lokomotoareak	11.496	4,0	11.851	4,8
Hauturak eta lesioak	12.711	6,7	8.650	8,7
Beste batzuk	15.361	4,8	13.653	4,7

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Marta de la Torre

Tlf:+34-945-01 75 48 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es